

# Asisko gutuna

2017ko azaroa.

1. printzipioa.

Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

109. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

“Maitasuna ez da maitatua” zioen San Frantziskok. Izan ere, nahiz eta Jainkoarekin harreman pertsonalaren bila gabiltzala diogun, sarri harreman horretan geure buruan bila baino ez gabiltza. Eta ez da egiazko harremana izango Jainkoa bere horretan bilatzen ez dugun bitartean, eta ez guri dakarzkigun ondasunengatik.

## Gogoetarako gaia

### Zein baldarrak garen maitatzeko

Maitatu eta maitatuak izatea, hori da gure gogorik handiena bizitzan. Badakigu hori dela betetzen gaituena eta gure bizitzari norabidea ematen diona. Badakigu hori bizitzera deituak gaudela, maitasunerako eginak garela. Behin eta berriro esan digu hori Jesusek. Orduan, zergatik zaigu hainbeste kostatzen?, zergatik egiten zaigu hain zaila geure bizitzaren zentroa bizia ematen digun hartan, benetan betetzen gaituen hartan, jartzea?

Alde batetik, uste dugulako badakigula hori egiten, pentsatzen dugulako maitatzea normala dela, berez sortzen zaigula... halako batean desengainuen, desleialtasunen, baldarkeria eta porroten errealitate hauskorrekin tupust egiten dugun arte... Eta holakoetan ere gutako gutxi ausartzen dira, ez dakigula maitatzen aitortzen. Nahiago dugu geure buruari esan, esperientzia txar bat izan dela.

Beste aldetik, berriz, manipulatu egin nahi dugulako maitasuna, geuron seguritate eta interesak bilatuz. Eta gauza bera Jainkoarekin. Gehiegitan nahasten dugu maitasuna geure desioarekin. Eta gure desioa ez da batere desinteresatua, baizik eta oso nahastua dabil interes ilunekin: segurtasun-premia, nabar-

mendu nahia, asebate nahia, dedikazio-premia... Eta horren froga da, kosta egiten zaigula maitasuna ematea gure desirei erantzuten ez dietenei, gure esperoak hausten eta gure desirak hondatzen dituztenei edo gure eskeei erantzuten ez dietenei. Hori gertatzen zaigu gure artean, eta gauza bera Jainkoarekin. Hitz guztiz zehatzekin esaten zuen hori orain zortzi mendeko emakume batek, Amberes-ko Hadewijch andreak: “Gaur jende guztiak bere burua maite du eta Jainkoarekin kontsolamenduan, atsedenean, aberastasunean eta boterean nahi du bizi, eta Haren aintzaren gozoa dastatu. Denok nahi dugu Jainkoarekin Jainko izan, baina Jainkoak daki, guretako gutxik nahi dutela Haren gizatasunarekin gizatiar izan, Haren gurutzea eraman, Harekin gurutziltzatuak izan. Norberak atera ditzake kontuak: gehienetan oso gutxi dakigu sufritzen. Zein azkar eta sakon ematen digun min, oztopo egiten digun nahigabe txiki batek, gaizkiesan edo kalumnia batek, ohore eta atsedean eta askatasun pixka bat kentzen digun zernahik”.

Jainkoari ez dio gure trakets izateak batere trabarik egiten. Eta ez dezagun ahaztu, maitatuz ikasten dela maitatzen.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 5, 43-48

Maitatu etsaiak eta egin otoitz pertsegitzen zaituztetenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko seme-alaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen euria. Izan ere, maite zaituztetenenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Zorionekoa, anaia gaixo dagoenean eta ezin ordaindu dionean, osasuntsu dagoenean eta ordaindu diezaiokeenean bezalaxe maite duen zerbitzaria! (Ahol 24). Zorionekoa, anaia urrun denean, ondoan denean bezalaxe maite eta errespetatzen duen zerbitzaria, eta hartaz beraren aurrean karitatez esango ez lukeen ezertxo ere atzetik esaten ez duena! (Ahol 25).

Badira sariaren interes gehiegi duten maitasunak, dio Frantziakok. Norberaren pisu gehiegi dutenak, eta horietan begirada ez da ez pausatzen ez jartzen bestearengan. Maitasun batzuetan kalkulatu eta pisatu egiten da zer aterako den ordainetan. Orduan maitasuna astuna gertatzen da, arrea, argirik gabea. Maitasun horiei ez dagokie "zorioneko" hitza. Ez da zorionekoa senideari era honetan soilik begiratzen dakien bihotza: sano dagoen ala gaixo, mesedea itzuli diezaiokeen ala ez. Zeren eta orduan benetan gaixo dagoena maitasuna da, eta gaixotu egiten du horrela praktikatzen duen hura. Badira maitasunak, esaten digu Frantziskok, norberaren egia sakonean heldu ez direnak: maitasun faltsuak, tolesturaz beteak. Gure maitasuna ez dago gure anbiguotasun eta egoismotik libre, eta horregatik bereizkuntzaz eta konbertsioz bizitu behar dugu.

## Otoitza

Maite zaitut, ene Jainko.

Nire desira bakarra Zu  
nire azken arnasa arte  
maitatzea da.

Maite zaitut, oi nire Jainko  
gutziz maitekorra,

eta nahiago dut Zu maitatuz hil, unetxo batean Zu  
gabe bizi baino.

Maite zaitut, oi nire Jainko, eta nire beldur bakarra  
infernura joatea da,

han ez bainuke inoiz zure maitasunaren  
kontsolamendu gozorik izango.

Oi ene Jainko,  
nire mihiak ezin badu

uneoro maite zaitudala esan,

gutxienez nahi dut nire bihotzak hori  
errepikatzea, arnasten dudan bakoitzean.

Ai, emadazu sufritzeko grazia maite zaitudanean,  
eta Zu maitatzea sufritzen dudanean,  
eta hil nadinean

ez soilik Zu maitatzea, baita maite zaitudala  
sentitzea ere.

Erregutzen dizut, zenbat eta gertuago naizen neure  
azken ordutik,

hazi eta hobetu dezazula

nire Zureganako maitasuna.

(San Juan Maria Vianey)

## Gutuneko azken hitzak

"Zugandik zu onena atera nahi baitut"" (Pedro Salinas)

## 2017ko azaroko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5, 1-12	7 Lk 14, 15-24	13 Lk 17, 1-6	19 Mt 25 14-30	25 Lk 20, 27-40
2 Jn 11,17-27	8 Lk 14, 25-33	14 Lk 17, 7-10	20 Lk 18, 35-43	26 Mt 25, 31-46
3 Lk 14, 1-6	9 Jn 2, 13-22	15 Lk 17, 11-19	21 Lk 19, 1-10	27 Lk 21, 1-4
4 Lk 14, 1.7-11	10 Lk 16, 1-8	16 Lk 17, 20-25	22 Lk 19, 11-28	28 Lk 21, 5-11
5 Mt 23, 1-12	11 Lk 16,9-15	17 Lk 17,26-37	23 Lk 19, 41-44	29 Lk 21, 12-19
6 Lk 14, 12-14	12 Mt 25, 1-13	18 Lk 18, 1-8	24 Lk 19, 45-48	30 Mt 4, 18-22

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



  
Asis Sarea

646 21 48 96

Azaroan elkarrekin ospatuko dugun otoitza 3an izango da 19:30tan